

## 25 GUNEA. ARENAKO ESTUARIOA. PUNTO 25. ESTUARIO DE LA ARENA

### BALORAZIOA


*Interesa: Turistikoa eta didaktikoa.*

*Kategoria: Eskualde mailakoa.*

*Kontserbazioa: Erregularra.*

*Antzeko beste gune batzuk: Gernika eta Plentziako estuarioak.*

*Irispidea: Bilbo-Castro errepidetik, Somorrostro parean hondartzarantz okertuz.*



### VALORACION

Interés: Turístico y didáctico.

Categoría: Regional.

Conservación: Regular.

Otros puntos semejantes: Estuarios de Gernika y Plentzia.

Accesos: Por la carretera Bilbao-Castro, desviándonos hacia la playa a la altura de Somorrostro.





*Arenako estuarioa Barbadun edo Somorrostro itsasadarraren bokalean aurkitzen da eta zonako ezaugarri tektonikoen arabera dago antolatuta. Eraldaketa larriak jasan dituen arren, oraindik ere bisitatu eta bereizi daitezke jatorrizko sub-ingurune batzuk. Ondorengo hauek dira interes geologiko handieneko zonak.*


*Labarrak: Estuarioa albo bietatik, E eta W-tik, mugatzen dute. Nahiko altuak dira, Konplexu Urganiarreko (Behe-Kretazikoko) kararri eta margo-kararrietan daude zizelatuta. Haien jatorrian gehienetan failen eragina egoten da, bereziki W-an; hemen aurkitzen da Pobeñako harkaitz-bloke isolatua, NW-SE norabideko hausturez mugatuta.*

*Dunak: Hondartzako mendebaldean azaltzen da dunen garalekua, itsasadarraren bokalean. Beren garrantzia dute duna hauek, Bizkaiko kostaldean iharduneko duna bakarrak bait dira. Hondartzako gune desberdinetan duna-kordoia bereraikitzeke ahaleginak egin ditu Foru-Diputazioak, bide eta aparkaleku berrien eraikuntzak arriskuan jarri duen sub-ingurune hau desagere ez dadin.*

*Padurak: Marea-kanalaren ezkerrean azaltzen dira batipat. Sub-ingurune honek jasan du giza ekintzaren erasorik latzena, izan ere erreferendegia lehengo padura-zonan bait dago ezarrita. Gaur egun beha daitekeen padura landarediak hartuta dago eta zingiradientzat oso leku gutxi gertatzen da.*

*Hondartzak: Bokalaren eskuinaldean azaltzen dira Kantauri itsasoko estuario guztietan bezalaxe. Estuarioko hondartza tipiko bat da, forma luzanga eta kontxa-profila duena.*

ARENAKO ESTUARIOAREN  
INGURUNE-UNITATEEN ESKEMA



ESQUEMA DE UNIDADES  
AMBIENTALES DEL ESTUARIO DE  
LA ARENA

El estuario de La Arena está situado en la desembocadura de la ría del Barbadun o Somorrostro, emplazándose a favor de las características tectónicas de la zona.

A pesar de las importantes alteraciones que ha sufrido, pueden reconocerse y visitarse parte de los subambientes originales. Las zonas de mayor interés geológico son:

**Acantilados:** Limitan el estuario a ambos flancos. Son de altura moderada, tallados en calizas y margocalizas del Complejo Urganiano (Cretácico Inferior). Su desarrollo general está relacionado con la existencia de fallas, particularmente en el lado W donde destaca el bloque aislado del Peñón de Pobeña.

**Dunas:** Aparecen en la zona W de la playa, junto a la desembocadura de la ría. Su importancia radica en ser las únicas dunas activas en la costa de Bizkaia, aunque en ciertos puntos han sido muy afectadas por la construcción de accesos y aparcamientos. No obstante, la Diputación Foral ha llevado a cabo intentos de reconstrucción.

**Marismas:** Aparecen principalmente en la margen izquierda del canal mareal. Este subambiente ha sido el más castigado por la acción humana, dado que la refinería se asienta sobre la antigua zona marismal. Actualmente existe un desarrollo muy escaso de superficies fangosas.

**Playa:** Aparece en la margen derecha de la desembocadura. Es una playa típica de estuario, con forma alargada y perfil de concha.